

# ZOZKETAREN OINARRIAK

## 3 HUAWEI P10 LITE SMARTPHONEREN ZOZKETA

### LABORAL KUTXA LK-PAY APP-AREN 2018KO KANPAINA

---

#### 1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, 3 HUAWEI P10 LITE smartphone zozkatuko ditu.

#### 2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

#### 3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren bezero diren pertsona fisiko guztiek hartu ahal izango dute parte zozketan, baldin eta 2018ko ekainaren 20tik abuztuaren 31ra bitartean LABORAL Kutxaren LK-Pay App-a erabiliz mugikor bidez ordainketa bat egiten badute edo LK-Pay App-eko Bizum zerbitzuaren bidez dirua mugikorretik mugikorrera bidali edo eskatzen badute. Partaidetza bat lortuko dute Bizum bakoitzeko (5 gehienez) eta beste bat mugikor bidezko ordainketa bakoitzeko (5 gehienez). Guztira 10 partaidetza izan ditzakete gehienez. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

#### 4.- zozketa

Zozketa 2018ko irailaren 10ean egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez, kanpaina-aldiaren barruan (2018ko ekainaren 20tik abuztuaren 31ra bitartean) baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean. Gainera, badaezpada ordezko 3 izen aterako dira zozketan, irabazleetako batek baldintzak betetzen ez baditu ere. 10 egun balioduneko epean saridunetakoren batekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkorentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

#### 5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

3 HUAWEI P10 LITE smartphone zozkatuko dira. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

#### 6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

#### 7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoreari emango zaio.

#### 8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) orrialdean kontsulta daitezke.